

Ane Garaialde Agirre

F maila • Aipamena

Ane Garaialde Agirre naiz eta 2008-ko Azaroaren 25ean jaio nintzen. Beasainen bizi naiz eta Sara ahizpa eta Beñat anaia gazteagoak ditut. Animaliak asko gustatzen zaizkit, baita ere zaldian ibiltzea. Abestea eta dantzatzea oso gogoko ditut ere. Aste Santuan Zarautzen ateratako argazki bat bidaltzen dizuet.



NOAREN ABENTURAK

Behin batean Noa izeneko neska batek eskolatik atera zenean txori bat ikusi zuen. Noa korrika joan zen txoriaren atzetik eta bat-batean beste mundu batera sartu zela konturatu zen.

Mundu horretan gauza miwesgarriak zeuden: adar bakarrak, abesten zuten loreak, marrazki bizidunetako pertsonaiak, espioiak, Doraemon,... Baina Noari gehien gustatu zitzaiona denak pozik bizi zirela izan zen.

Eguna bukatzeaz zegoenean halaxe esan zion maitagarri batek Noari:

- Noa, ez esan inori mundu berri bat deskubritu duzula.
- Zergatik? Galdetu zuen Noak.
- Bestela gizakiek gure magia kenduko digute eta gainera okerreña da zuen poz guztiak desagertuko direla.
- Ongi da, ez kezkatu, sekretua gordeko dut. Erantzun zuen Noak.

Egunak joan eta egunak etorri, Noak gauza asko egin zituen mundu miwesgarrian: lanabesak ondo erabiltzen, adar bakarrak garbitzen, loreekin abesten,... oso ondo pasatzen zuen.

Baina egun batean, Noa eta maitagarriak konturatu ziren lurreko jendea mundu miwesgarria existitzen zela susmatzen hasi zirela. Noa eta maitagarria arazo honi buruz hitz egiteko geratu ziren.

- Ezingo dugu berriz elkar ikusi. Zuen bizitza arriskuan jartzen ari naiz. Esan zuen Noak oso triste.

Maitagarriak Noa lur-jota ikusi zuenean ideia bat izan zuen.

- Zer iruditzen zaizu egunero-egunero gaueko hamarretan ilargiari begiratzen badiogu? Horrela gauero gure bihotzak ilargiaren argitasunean aurkituko dira.

Eta halaxe gertatu zen. Egunak joan eta egunak etorri Noak hamarretan ilargiari begiratu zion ordutik. Gaur egun ere, Noak ez du huts egiten bere hitzordura. Gauero-gauero hamarretan dirdira bat ikusten du ilargian, eta badaki bere lagunak direla, betiko berarekin izango ditu. Naiz eta zaila izan bere lagunak ikusi gabe egotea beraiek babesteko hoberena delako egiten du.